

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

ZARAUZKO UDALA

Iragarkia

2019ko otsailaren 28an egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak erabaki zuen hasierako onespena ematea araudi honi:

– Zinema Pilotalekuaren funtzionamendurako barne araudia.

Jendaurrean jartzeko epea amaitu da, alegaziorik egon gabe. Hori horrela, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, behin betiko onartuta geratutako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio-bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarria argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita; egoki irizitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

Aplikatzekoa den legeria: urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (123. eta 124. artikulua); eta uztailaren 13ko 29/1998 Legea, Administrazioarekiko Auzitarako Eskumena arautzen duena (46. artikulua).

Zarauz, 2019ko maiatzaren 2a.—Xabier Txurruka, alkatea.
(2871)

Zinema Pilotalekuaren funtzionamendurako barne araudia.

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.

Arautegiaren helburua da Zinema pilotalekua eraikinaren erabilera eta funtzionamendu arauak ezartzea (Zigordia kalea 34).

Helburua da erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak zein diren zehaztea eta instalazioak erabiltzeko baldintzak jartzea.

2. artikulua.

Zarauzko Udalak zarauztar nerabe eta gazteei erlazio gune bat eskaintzeko sortutako ekipamendua da, parte hartzea eta dinamizazio soziokulturala sustatu eta sendotzeko asmoz.

Nolanahi ere, haur, nerabe eta gazteei zuzendutako zerbitzuak jarduera hezitzaileak direnez, zerbitzu horiek eskaintzeko erabiltzen diren eraikin edo azpiegiturek ere gune hezitzaileak izan behar dira.

Hala ere, jakina da Zinema Pilotalekuaren erabiltzaileak ez direla bakarrik nerabeak eta haien begirale-hezitzaileak edota gazteak; izan ere, instalazioek herriko hainbat talde eta elkarteren beharrei ere erantzuten diete. Horrela, bada, talde eta elkarte horiek Zinema pilotalekuan egiten dituzten jarduerak ere

AYUNTAMIENTO DE ZARAUZ

Anuncio

El Pleno del Ayuntamiento de Zarauz, en sesión celebrada el día 28 de febrero de 2019, acordó aprobar inicialmente el siguiente reglamento:

– Reglamento de funcionamiento interno de «Zinema Pilotalekua».

Transcurrido el periodo de información pública sin que se haya presentado ninguna alegación, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70-2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, se publica el texto que ha quedado aprobado definitivamente.

Contra el acuerdo, que pone fin a la vía administrativa, se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la publicación del presente anuncio, sin perjuicio de que pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.

Legislación aplicable: artículos 123 y 124 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, y artículo 46 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa.

Zarauz, a 2 de mayo de 2019.—El alcalde, Xabier Txurruka.
(2871)

Reglamento de funcionamiento interno de Zinema Pilotalekua.

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.

El objetivo de este reglamento es el establecimiento de las normas de uso y funcionamiento del edificio de Zinema pilotalekua (Zigordia kalea 34).

El objetivo es determinar los derechos y obligaciones de los usuarios y las usuarias, y establecer las condiciones de uso de las instalaciones.

Artículo 2.

Se trata de un equipamiento creado por el Ayuntamiento de Zarauz para ofrecer a jóvenes y adolescentes zarauztarras un espacio donde relacionarse, con el objetivo de fomentar y reforzar la participación y la dinamización sociocultural.

Como quiera que los servicios dirigidos a niños/as, adolescentes y jóvenes son actividades educativas, los edificios o infraestructuras utilizados para la prestación de dichos servicios también tendrán la consideración de espacios educativos.

Sin embargo, es un hecho que los adolescentes y sus monitores o los jóvenes no son los únicos usuarios de Zinema pilotalekua, ya que diferentes grupos y asociaciones del municipio también utilizan estas instalaciones para satisfacer sus necesidades. Por lo tanto, las actividades que realizan estos grupos y

bat egin beharko dute Gazteria Departamentuak onartuta di-tuen euskararen inguruko zehar lerroekin.

Ildo horretan, egingo diren jarduerak euskaraz garatzea lehenetsiko da, «Euskaraz soilik bizi nahi dut» leloa bermatuz, eta bizi-estilo hori bultzatuz, aisialdian ere euskararen erabilera sustatzeko eta euskal nortasuna eta kultura bultzatzeko.

3. artikulua.

Gazteria Departamentuaren bidez kudeatu eta zainduko da eraikina. Udalak beharrezko teknikari eta langileak jarriko ditu zaintzaz eta funtzionamenduaz arduratzeko. Kudeaketa horretan lagun izango dira Haize-orratz Gaztelekua eta Gazte Informazio Zerbitzuan lan egiten dutenak, hala nola KZ Guneako begiraleak.

4. artikulua.

Zerbitzu publikoak eskaintzen dira bertan, eta gune bat eta baliabideak eskaintzen dira, zarauztar nerabeen eta gazteen beharrei erantzun nahian:

- Gazte Informazio Zerbitzua.
- Kantxa.
- KZ Gunea.
- Gazteria eta Hezkuntza Departamentuen bulegoa.
- Bilera gela.
- Haize-orratz Gaztelekua.
- Tailer gelak.
- Ikuskizun aretoa.

Era berean, bestelako jarduerak ere antolatzeko aukera egongo da.

GUNE ETA ZERBITZUAK ERABILTZEKO ARAUAK

5. artikulua.

Ondoko betebeharrak betetzen dituzten pertsonak lehentasuna izango dute eraikinak eskaintzen dituen espazioak erabiltzerakoan:

- 12 eta 30 urte bitarteko edozein zarauztar gazte.

Halaber, horiez gain, ondorengo kolektiboek ere erabili ahal izango dute Zinema pilotalekuko eraikina (Haize-orratz Gaztelekuko espazioak izan ezik): Zarauzko Udalarekin lotutako departamentuek edo erakundeek, herritarrek, taldeek eta elkarteek (lehentasuna euskaraz izango den ekimenak/ekintzak izango du; eta, gero, lehentasuna zarauztarrek izango dute); gazteriarri zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakunde eta elkarteek; eta beste erakunde edo instituzioek.

Nerabeei eta gazteei zuzendutako jarduerak lehenetsiko dira, eta garrantzi berezia emango zaie euskal nortasunarekin, kirolarekin, euskal kulturarekin eta aisialdi arduratsuekin lotutako jarduerari.

6. artikulua.

Udala ez da arduratuko erabiltzaileek Zinema Pilotalekuan antolatutako jardueraz edota emandako iritziez.

7. artikulua.

Behar bezala zaindu eta erabiliko dira jarduerak burutzeko antolatzaileen esku jarritako gela eta materialak; gazteak, elkarteak, taldeak eta erakundeak arduratuko dira behar bezala erabili ez den materiala konpontzeaz, birjartzeaz edo, hala behar

asociaciones en Zinema pilotalekua deberán estar en consonancia con las líneas transversales que tiene aprobadas el Departamento de Juventud en torno al euskera.

En ese sentido, se priorizará el desarrollo de actividades en euskera, garantizando el lema de «Euskaraz soilik bizi nahi dut» e impulsando ese estilo de vida, para la promoción del uso del euskera también en el ocio y el fomento de la identidad y cultura vascas.

Artículo 3.

La gestión y conservación del edificio correrá a cargo del Departamento de Juventud, con la disposición por parte del Ayuntamiento de personal técnico y empleado necesario para encargarse de su conservación y funcionamiento. En esta gestión también colaborarán Haize-orratz Gaztelekua, el personal de la Oficina de Información Juvenil, así como los monitoras y monitoras de KZ Gunea.

Artículo 4.

En este local se ofrecen una serie de servicios públicos, así como un espacio y recursos con los que se pretende dar una respuesta a las necesidades de jóvenes y adolescentes de Zarautz:

- Centro de Información Juvenil.
- Cancha.
- KZ Gunea.
- Oficinas de los departamentos de Juventud y Educación.
- Sala de reuniones.
- Haize-orratz Gaztelekua.
- Aulas taller.
- Sala de espectáculos.

Asimismo, se podrán organizar otro tipo de actividades.

NORMAS PARA EL USO DE ESPACIOS Y SERVICIOS

Artículo 5.

Las personas que cumplan los siguientes requisitos tendrán prioridad a la hora de usar estos espacios:

- Cualquier joven zarauztarra que tenga entre 12 y 30 años.

Asimismo, podrán utilizar el edificio de Zinema pilotalekua (salvo los espacios ocupados por Haize-orratz Gaztelekua) los siguientes colectivos: departamentos o instituciones relacionados con el Ayuntamiento de Zarautz, vecinos y vecinas, diferentes grupos y asociaciones (las actividades/iniciativas en euskera tendrán prioridad; y posteriormente los zarauztarras); instituciones y asociaciones cuyos servicios vayan dirigidos a la juventud, y otras instituciones.

Tendrán preferencia las actividades dirigidas a jóvenes y adolescentes, y especialmente aquellas relacionadas con la identidad vasca, el deporte, la cultura vasca y el ocio responsable.

Artículo 6.

El Ayuntamiento no será responsable de las actividades organizadas u opiniones vertidas por los usuarios y usuarias en el edificio de Zinema pilotalekua.

Artículo 7.

Las aulas y materiales puestos a disposición de cualquier organización para la realización de las actividades se conservarán y utilizarán con el debido cuidado; los jóvenes, las asociaciones, grupos o instituciones serán quienes se encarguen de la

denean, ordaintzeaz. Antolatzaileen erantzukizuna izango da gertatzen den ondorio kaltegarri oro.

8. artikulua.

Gazteek eta elkarteek –edota bestelako erabiltzaileek– espazioak erabiltzean elkarbizitza eta elkarrekiko begirunearen oinarritzko printzipioak beteko dituzte, erabiltzaile batek egiten duenak beste batek egindakoa kaltetu gabe.

9. artikulua.

Erabiltzaileek Gazteria Departamentuko arduradunei jakinarazi beharko diete, eraikinean, geletan edo jardueraren funtzio-namenduan edozein arazo edo irregulartasun somatzen badute.

10. artikulua.

Aretoak ez zaizkio inola ere gazte elkarte edo entitate bati eskusibotasunez utziko.

11. artikulua.

Eraikinean debekatuta dago dirua irabazteko asmoa duten jarduerak egitea. Era berean, ezingo da jardueretan parte hartzeko dirurik eskatu.

12. artikulua.

Gazteek eta taldeek eraikineko guneak ordutegiaren barruan erabili nahi izanez gero, ez da halabarrez erreserba egin beharko; hala ere, gela bat erreserbatuz gero, lehentasuna izango du erreserbatzaileak, araudi honetako «Erreserbak egiteko araudia» puntuak zehazten duen moduan.

Zinema pilotalekua orduz kanpo erabiltzeko edo jarduera bereziak antolatzeko, hamabost egun lehenago erreserba egitea eta Gazteriako zinegotziaren eta Gazteria Departamentuko arduradunaren baimena edukitzea beharrezkoa izango da.

13. artikulua.

Zinema pilotalekuan gazteek, taldeek edota elkarteek antolatzen dituzten jarduerak baimentzeko prezio publikoak ordaintzea eska daiteke, hala dagokionean.

14. artikulua.

Eraikineko espazio jakin bat erabili ondoren, behar bezala utzi beharko da, gero gainerako erabiltzaileek prest aurkitu dezaten.

Instalazioak erabiltzeko baimena eskatu duen elkarteak edo pertsonak ordaindu beharko ditu erabilera okerragatik gertatzen diren kalteak. Antolatzaileen edota erreserba egin duenaren erantzukizuna izango da gertatzen den ondorio kaltegarri oro.

15. artikulua.

Zinema pilotalekua jendearentzat irekita edukitzeko ordutegia urtero onartutakoa izango da.

Gainerako zerbitzu bakoitzak –Nerabe Zerbitzua, Gazte Informazio Bulegoa eta KZ gunea– bere ordutegia izango du.

16. artikulua.

Jarduerak antolatzeko eta ikuskizunetarako gela zein eraikineko beste edozein gune erabili eta erreserbatzeko, idatzizko eskaera aurkeztu beharko da, jarduera baino hamabost egun lehenago.

Ildo horretan, jarduerarako sarrerak badaude (jardueraren eguna baino lehen banatutako sarrerak edota tiketak), horren berri eman beharko da baimena eskatzerakoan; gainera, sarrerek doakoak izan beharko dute.

reparación, reposición y abono, en su caso, de los materiales utilizados indebidamente. Cualquier perjuicio será responsabilidad de la organización.

Artículo 8.

Jóvenes y asociaciones –o cualquier otro usuario o usuaria– deberán cumplir los principios básicos de convivencia y respeto mutuo en el uso de los espacios, de manera que la acción de un usuario o usuaria no perjudique al resto.

Artículo 9.

Los usuarios y usuarias deberán informar a los responsables del Departamento de Juventud sobre cualquier problema o irregularidad detectada en el edificio, las aulas o el funcionamiento de la actividad.

Artículo 10.

Los espacios no se podrán en ningún caso ceder en exclusividad a una asociación o entidad juvenil.

Artículo 11.

En el edificio está prohibida la realización de cualquier actividad con ánimo de lucro. Asimismo, no se podrá cobrar cantidad alguna por participar en las actividades.

Artículo 12.

En caso de uso de los espacios del edificio por parte de jóvenes y colectivos dentro de su horario, no será necesario realizar la reserva; no obstante, si se reserva un espacio, quienes hayan realizado la reserva tendrán prioridad, tal como se detalla en el punto de «Normas para realizar reservas» de este reglamento.

Para el uso u organización de eventos especiales fuera del horario habitual de Zinema pilotalekua, será necesario realizar la reserva con quince días de antelación, y contar con la autorización del concejal de Juventud y de la responsable del Departamento de Juventud.

Artículo 13.

En su caso, se podrá solicitar el pago de precios públicos para autorizar las actividades organizadas por jóvenes, grupos o asociaciones en Zinema pilotalekua.

Artículo 14.

Los espacios utilizados se deberán dejar en correcto estado, de forma que no impida la adecuada utilización por parte de otros usuarios o usuarias.

Los desperfectos ocasionados por un uso inadecuado correrán a cargo de la asociación o personas que hayan solicitado la autorización para el uso de la instalación. Cualquier perjuicio será responsabilidad de la organización o de aquella persona que haya realizado la reserva.

Artículo 15.

El horario de apertura al público de Zinema pilotalekua será el que se apruebe anualmente.

El resto de servicios, como el Servicio para adolescentes, Oficina de Información Juvenil y KZ Gunea, tendrán su propio horario.

Artículo 16.

Para organizar actuaciones y usar y reservar la sala de espectáculos o cualquier otro espacio, se deberá presentar una solicitud por escrito, quince días antes de la actividad.

En ese sentido, si la organización ha previsto el establecimiento de entradas o de tiques distribuidos con antelación al día de la actuación, se deberá dar cuenta de ello al solicitar la autorización, teniendo en cuenta que dichas entradas deberán ser gratuitas.

Lagapenerako eskaera egin duen gazteak edo taldeak izango du jarduera eta gunearen ardura; beraz, bere gain geratuko dira prestaketa, zaintza eta jasotze lanak.

17. artikulua.

Herritarrek erabil ditzakete Zinema pilotalekuan eskaintzen diren beste zerbitzu batzuk ere, KZ Gunea, esaterako. Zerbitzu horiek erabiltzerakoan prezio publikoak ordaintzea eska daiteke.

ERABILTZAILEEN BETEBEHARRAK

18. artikulua.

Eraikinaren erabiltzaileek betebeharrak hauek izango dituzte:

- Arautegi honek xedatutako guztia betetzea, funtzionamendu egokia eta gainerako erabiltzaileekin elkarbizitza bermatzearen.
- Udalaren helburuekin bat datozen jarduerak burutzea soilik.
- Zerbitzuak, ekipamendua, altzariak eta erabiltzaileari utzitako gainerako elementuak zaintzea eta behar bezala erabiltzea.
- Instalazioetan errespetuz jokatzeko eta bertako langileen lana erraztea.
- Bertako arduradunei laguntzea, behar bezalako funtzionamendua ziurtatzearen.
- Beste erabiltzaile guztien eskubideak errespetatzea.
- Jarduerak edo gainerako zerbitzuak erabiltzeko eskatu daitezkeen prezio publikoak ordaintzea.

ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

19. artikulua.

Erabiltzaileen eskubideak honakoak dira:

- Instalakuntzak eskaintzen dituen aretoak erabiltzea, zehaztutako ordutegien eta mugen arabera.
- Bertako instalazioen edo zerbitzuen gainean gauzak galdetzeko eskubidea.
- Norbaitek erreklamazioen bat edo iradokizun bat egin nahi badu, langileengana jotzeko eskubidea, tratua ona jasotzekoa eta erantzuna edukitzea.
- Gelen erreserbak egiteko eskubidea –arautegi honek zehazten duen moduan–, eta erreserbatutako gelen erabilera bermatuta edukitzea.
- Indarrean dagoen legerian jasotako gainerako eskubideak.

ERANTZUKIZUNAK

20. artikulua.

Zinema pilotalekua erabiltzeak edo bertan jarduerak antolatzeko zuzenean nahiz zeharka ekar ditzakeen kalte edo galerak guztiak bere gain hartuko ditu sortu dituen erabiltzaileak nahiz antolatzaileak, soilik eta eskusiboki.

ERRESERBAK EGITEKO ARAUDIA

21. artikulua.

Zinema pilotalekuan unean uneko jarduerak egiteko honako prozesua jarraituko da:

El joven o grupo solicitante de la cesión será el responsable de la actividad y del espacio, por lo que se encargará de los labores de preparación, vigilancia y recogida.

Artículo 17.

La ciudadanía podrá hacer uso de otros servicios que se ofrecen en Zinema pilotalekua (por ejemplo, KZ Gunea), por los cuales se podrá exigir el pago de precios públicos.

OBLIGACIONES DE USUARIOS Y USUARIAS

Artículo 18.

Los usuarios y usuarias del edificio tendrán las siguientes obligaciones:

- Cumplir todo lo dispuesto en este reglamento, para garantizar un adecuado funcionamiento y la convivencia con el resto de usuarios y usuarias.
- Organizar exclusivamente actividades que coincidan con los objetivos del Ayuntamiento.
- Conservación y uso adecuado de servicios, equipamiento, mobiliario y demás elementos cedidos al usuario o usuaria.
- En las instalaciones actuar con respeto y facilitar su trabajo al personal.
- Colaborar con los responsables para garantizar un funcionamiento adecuado.
- Respetar los derechos del resto de usuarios y usuarias.
- Abonar los precios públicos que se exijan por las actividades o por el uso del resto de servicios.

DERECHOS DE USUARIOS Y USUARIAS

Artículo 19.

Estos son los derechos de usuarios y usuarias:

- Utilizar los diferentes espacios que ofrece la instalación, dentro del horario y límites establecidos.
- Derecho a plantear cualquier pregunta en torno a sus instalaciones o servicios.
- En caso de que cualquier persona quiera realizar una reclamación o sugerencia, tendrá derecho a dirigirse al personal del lugar, a ser atendido adecuadamente y a recibir una contestación.
- Derecho a reservar diferentes espacios, conforme al procedimiento establecido en este reglamento, y a tener garantizado el uso del local reservado.
- El resto de derechos recogidos en la legislación vigente.

RESPONSABILIDADES

Artículo 20.

Será el usuario o usuaria u organizador u organizadora quien se haga cargo exclusivamente de todos los daños o perjuicios que se produzcan directa o indirectamente por la utilización de Zinema pilotalekua o por la organización de actividades.

NORMAS PARA REALIZAR LA RESERVA

Artículo 21.

Para la realización de actividades ocasionales en Zinema pilotalekua se deberá seguir el siguiente procedimiento:

– Gazteria Departamentura deitu, eta, jarduerarako aukeratutako egunean Zinema pilotalekuko beharrezko gela/espazioa libre dagoen galdetu ondoren, behin-behineko erreserba egitea eskatu.

– Behin betiko erreserba egiteko eskaera-orria bete, eta HAZen edota Gazteria Departamentuan aurkeztu, jardueraren inguruko datuak azalduz: eguna, ordutegia, jardueraren deskribapena, behar teknikoak, hartzaileak.

– Eskaerak hamabost eguneko aurrerapenaz egingo dira, gutxienez.

– Hala badagokio, prezio publikoa ordaindu.

– Erantzukizun zibileko poliza bat aurkeztu.

– Kasu bakoitzean behar diren baimenak lortu eta aurkeztu.

– Instalakuntzak erabili ondoren, hasieran zeuden bezala utzi.

22. artikulua.

Honakoa izango da espazio edota gelen erreserbak egiteko lehenetasunen hurrenkera:

1. Nerabeen eta gazteen intereseko proiektuak.
 - a. Horien artean lehenetsiko dira: euskara, euskal nortasuna eta euskal kultura sustatzeko eta aupatzeko ekintzak.
2. Erabiltzaile zarauztarrak.
3. Antolatzaile zarauztarrak.
4. Irabazi asmorik gabeko jarduerak.

23. artikulua.

Erreserbatutako eguna baino hamabost egun lehenago baieztatutako da espazioaren behin betiko erreserba, lehenetasunen hurrenkera errespetatuz beste inork egun eta une bererako espazio bera erreserbatu ez duela baieztatu ondoren.

24. artikulua.

Araudia aplikatzerakoan sortzen den edozein zalantza argitzeko edo araudian bertan zehazten ez den guztirako, Zarauzko entitate, elkarte eta beste talde edo kolektibo batzuei udal lokal eta aretoen erabilera lagatzeko ordenantza arautzailea aplikatuko da.

ZIGOR ARAUBIDEA

25. artikulua.

Barne araudiko arauak hausten dituzten erabiltzaileak kanporatuak izan daitezke Zinema pilotalekuko instalazioetatik, berehala eta zuhurtasunezko neurri moduan, dagokion zigorra ezartzeko aukera baztertu gabe.

26. artikulua.

Arau-hauste administratibotzat hartuko dira araudi honetako xedapenen kontra edo Zarauzko Udalak dituen gainerako araudi eta jarraibideen aurka egiten diren ekintza eta ez-egiteak. Arau-hausteak arinak, larriak edo oso larriak izan daitezke.

27. artikulua.

Arau-hauste arinak izango dira barne araudian jasotakoak ez betetzea, arau-hauste larritzat edo oso larritzat jotzen ez direnean.

28. artikulua.

Arau-hauste larriak izango dira:

- a. Hiru arau hauste arin edo gehiago egitea.

– Llamar al Departamento de Juventud y, tras preguntar si el aula/espacio necesario de Zinema pilotalekua se encuentra libre para el día elegido para la actividad, solicitar una reserva provisional.

– Para la reserva definitiva, se deberá cumplimentar la hoja de solicitud y presentarla en el SAC o en el Gazteleku, junto con los detalles relativos a la actividad, tales como, fecha, hora, descripción de la actividad, necesidades técnicas, público destinatario.

– Las solicitudes se realizarán al menos con quince días de antelación.

– Pago de precio, en su caso.

– Presentación de una póliza de responsabilidad civil.

– Obtención y presentación de las autorizaciones necesarias en cada caso.

– Tras la utilización de la instalación, dejarla en su estado original.

Artículo 22.

El orden de preferencia para la realización de reservas de espacios o aulas será el siguiente:

1. Proyectos de interés para jóvenes y adolescentes.
 - a. Tendrán preferencia las acciones dirigidas a promover e impulsar el euskera y la identidad y cultura vascas.
2. Usuarios o usuarias zarauztarras.
3. Organizadores u organizadoras zarauztarras.
4. Actividades sin ánimo de lucro.

Artículo 23.

La reserva definitiva del espacio se confirmará quince días antes de la fecha reservada, respetando el orden de preferencia, tras confirmar que no existe ninguna otra reserva de ese espacio para la misma fecha y horario.

Artículo 24.

Para resolver cualquier duda que pueda surgir en la aplicación del presente Reglamento o para todo lo no previsto en él, se estará a lo dispuesto en la ordenanza reguladora de la cesión del uso de locales y otras dependencias municipales a entidades, asociaciones y otros grupos o colectivos de Zarautz.

RÉGIMEN SANCIONADOR

Artículo 25.

Los usuarios y usuarias que incumplan estas normas de régimen interno podrán ser expulsados, de forma cautelar e inmediata, de las instalaciones del Zinema pilotalekua, sin perjuicio de la imposición de las sanciones oportunas.

Artículo 26.

Las acciones u omisiones contrarias a las disposiciones de este reglamento o al resto de normativas e instrucciones del Ayuntamiento de Zarautz constituyen infracciones administrativas. Las infracciones que puedan producirse se clasifican en leves, graves y muy graves.

Artículo 27.

Tendrán la consideración de infracciones leves todos aquellos incumplimientos que no merezcan la calificación de graves o muy graves.

Artículo 28.

Se considerarán faltas graves las siguientes:

- a. La comisión de 3 o más faltas leves.

b. Zinema pilotalekuko espazioak edota bertako materiala asmo txarrez hondatzea edota arduragabekeria larriaz erabiltzea.

c. Zinema pilotalekuko espazioak edota bertako materiala beste xede batekin erabiltzea, eta ez berez duenarekin.

d. Udal arduradunen aginduak ez betetzea.

e. Jarrera setatsu eta ezkorra mantentzea, beste erabil-tzaile edo langileen elkarbizitza oztopatzea edota zerbitzuen funtzionamenduan eragozte.

f. Zinema pilotalekuko espazioak erabiltzeagatik eskatu ahal diren prezioak publikoak ez ordaintzea.

29. artikulua.

Arau-hauste oso larriak dira:

a. Bi arau-hauste larri jarraian egitea.

b. Zinema pilotalekuko espazioetan lapurretak egitea.

c. Ordutegiz kanpo Zinema pilotalekura sartzeta, Gazteria zinegotziaren edota Gazteria Departamentuko arduradunaren baimenik gabe.

30. artikulua.

Ezarriko den zigorra zehazteko, kontuan hartuko dira arau-hauslearen asmo gaiztoa, huts-egiteak sortutako kalte ekonomi-koak, huts-egitearen entzute eta garrantzi publikoa, eta beste irizpide graduatzaile eta objektiboak.

31. artikulua.

Barne araudian tipifikatutako ekintzetan edo ez-egiteetan, dolu, erru edo axolagabekeriak jokatu duten pertsona fisikoak edo juridikoak izango dira erantzuleak; hala ere, adin txikikoak direnean –edota erantzukizuna ez egoteko arrazoiren bat dagoenean–, haien gurasoek, tutoreek edo zaintza legala duten pertsonak erantzungo dute.

32. artikulua.

Araudian jasotako arau-hausteei ondorengo eskalaren araberako zigorrak jarriko zaizkie:

1. Arau hauste arinak:

a. Ohartarazpena.

b. 10 eurotik 50 eurora bitarteko isunak.

2. Arau hauste larriak:

a. 51 eurotik 1.500 eurora bitarteko isunak.

b. Zinema pilotalekuan sartzeko debekua, gehienez ere urtebeteko epean.

3. Arau hauste oso larriak:

a. 1.501 eurotik 3.000 eurora bitarteko isunak.

b. Zinema pilotalekuan sartzeko debekua, 1-5 urteko epean.

33. artikulua.

1. Arau-hauste oso larriak hiru urtera preskribatuko dira, larriak bi urtera, eta arinak sei hilabetera.

2. Arau-hauste oso larrien zigorrak hiru urtera preskribatuko dira, larriak urtebetera, eta arinak sei hilabetera.

34. artikulua.

Alkatetza izango da zigortzeko eta eragindako kalteak eta asmo txarrak baloratzeko organo eskuduna, Udaltzaingoak egindako balorazioari utzi gabe.

b. El deterioro intencionado o la negligencia grave en el cuidado de los espacios de Zinema pilotalekua o de sus materiales.

c. Utilizar los espacios de Zinema pilotalekua o sus materiales para un uso diferente al que fueron destinados.

d. Desobediencia a las instrucciones del responsable municipal.

e. El mantenimiento de un comportamiento obstinado y negativo, que obstaculiza la convivencia con otros usuarios y usuarias o el personal, e impide el funcionamiento de los servicios.

f. El impago de los precios públicos exigibles por la utilización de los espacios de Zinema pilotalekua.

Artículo 29.

Infracciones muy graves.

a. La comisión seguida de dos faltas graves.

b. Robos en los espacios de Zinema pilotalekua.

c. La entrada en Zinema pilotalekua fuera de su horario, sin la autorización del concejal de Juventud o de la responsable del Departamento de Juventud.

Artículo 30.

Para determinar la sanción que se debe imponer se tendrán en cuenta la intencionalidad del infractor, el perjuicio económico de la falta, la notoriedad y trascendencia pública de la infracción y otros criterios objetivos de graduación.

Artículo 31.

Serán responsables directos de las infracciones contenidas en el presente reglamento los autores materiales de las infracciones, sea por acción u omisión, excepto en los supuestos en los que estos sean menores de edad o concurra en ellos alguna causa de inimputabilidad, en cuyo caso responderán por ello padres y madres, tutores o aquellos que detentan la custodia legal.

Artículo 32.

Las infracciones recogidas en este reglamento se sancionarán según la siguiente escala:

1. Infracciones leves:

a. Apercibimiento.

b. Multa de 10 a 50 euros.

2. Infracciones graves:

a. Multa de 51 a 1.500 euros.

b. Prohibición de entrada en Zinema pilotalekua, por un período de hasta un año.

3. Infracciones muy graves:

a. Multa de 1.501 a 3.000 euros.

b. Prohibición de entrada en Zinema pilotalekua por un período de 1 a 5 años.

Artículo 33.

1. Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años, y las leves a los seis meses.

2. Las sanciones de las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las de las graves al año, y las de las leves a los seis meses.

Artículo 34.

La Alcaldía será el órgano competente para imposición de sanciones y para la valoración de los daños ocasionados y de la intencionalidad, sin perjuicio de la valoración realizada por la Policía Municipal.

Amaierako xedapena.

Zarauzko Udaleko Gazteria Departamentuak ebatziko du araudi hau interpretatzerakoan sortzen den edozein zalantza.

Barne araudi honetan jarritako araubideak ez ditu bazter-tzen beste administrazio publiko batzuek euren eskumenen jardunearan egiten dituzten jarduerak.

Disposición final.

El Departamento de Juventud del Ayuntamiento de Zarautz será quien resuelva cualquier duda que surja en la interpretación de este reglamento.

El régimen establecido en este reglamento no excluye las actuaciones que otras administraciones públicas lleven a cabo en el ejercicio de sus competencias.